

UDALTZAINGOAREN EGOITZA

I. Kontratuaren xedea

Kontratu honen xedea *Villa Eustasia* izeneko eraikinean Udaltzaingoaren egoitza berriaren proiektua eta obra egitea da.

II. Baldintza tekniko orokorrak

UDALTZAINGOAREN egoitza barria Zubiaur tar Kepa kalea 48an egongo da, "VILLA EUSTASIA" izeneko eraikinean. Era berean, alboko azalera be hartuko dau, aparkaleku eta zerbitzu gunerako, eta segurtasunezko perimetro-itxituraz mugatuta eta babestuta egon beharko da. Esparrurako zein eraikinerako sarrerea instalazioen barruko partetik kontrolauta egon beharko da.



Eraikinak segurtasun periferikoko cctv instalazioa euki beharko dau, barruko segurtasuneko cctv instalazioa. Udaleko sistema informatikoagaz eta telefonikoagaz konexinoa (fisikoa zein hari bakoia). Baldintza hori guztiz ezinbestekoa da sailaren eragingarritasunerako. Telekomunikazioen instalazioa. (irratia). Bertan Alde Zaharrera Ibilgailuak Sartzeko kontrol sistema egongo da, baita ganerako udal egoitzetako segurtasun-kamerak ikusteko sistema be.



Energia hornidurarako sistema autonomo bat be euki beharko dau, larrialdietarako (hornidura elektrikoa galtzen danerako) baita eraikuntzako ohiko zerbitzuak be (ke-detektagailuak, berokuntza, etab.).



Eraikinak hiru solairu, teilatupea eta sotoa daukaz, eta barruko eskilara bidez eta igogailu bidez dagoz komunikauta. Ezarri behar diren zerbitzuak hurrengokoak dira:

SARBIDEA
SARREREA
JENTEAREN ZAKO ARRETEA (SEGURTASUN SARRERA)
KONTROL ZENTROA/ADMINISTRAZINO ZERBITZUAK.
SALAKETA GELEA
KOMUNAK
ARTXIBOA
BATZAR GELEA/BREAFING
SAILBURUAREN BULEGOA
TXANDAKO ARDURADUNAREN BULEGOA
ATESTATUEN BULEGOA
ARMAZAINA

GIZONEZKOEN ALDAGELEA.
ANDRAZKOEN ALDAGELEA



DUTXAK
KOMUNA
ATSEDENERAKO GELEA

Gainera beste BULEGO bat eta BATZAR GELA egokitu beharko dira, beste udal zerbitzuetarako, Udaltzaingoz aparte eta sarrera independente batekin.

Bestalde, SEGURTASUN EREMUA edo atxilotuak artatzeko eremua izango da eta jarraian zehazten dan planteamentua egin ahal izango litzateke:

ATXILOTUAK ARTATZEKO EREMUA:

Atxilotuak polizia-etxeetan artatzeko eta zaintzeko auziaren ganean egondako arazoan aurrean, batez be konfinamendu lekuen (ziegak) baldintzei jagokenez, ziega barriak eregiterakoan jarraibide batzuk bete behar dira.

Gaiaren ganeko esperientziak agintzen dau atxilotuen osotasun fisikoa egoki babestea eragozten daben neurriak kendu behar dirala, hau da, burdin-sareak eta barroteak kendu.

Neurri handi baten, atxilotuek eragin daikiezan gorabeherak edo arazoak, hau da, euren borondatearen kontra poliziaren egoitzetan dagozan personek eragin daikiezanak, atxilo daukiezan egoitza ofizialetako baldintzen ondorioz bizi dabezan gorabeheren ondorio dirala. Atxilotuaren jarduerak, batez be, hiru arlotan izango dau eragina:

- Atxilotua egongo dan lekua edo eremua mugatzea (segurtasun eremua).
- Egoitza jakin batzuen egoerea.
- Atxilotuaren barne araubidearen baldintzak.

SEGURTASUN EREMUA.

Atxilotuaren segurtasunak arlo bitan dauka eragina: alde batetik ihes egitea eragozte eta, bestetik, haren osotasun fisikoa babestea (istripurako edo beraren buruari lesioak eragiteko arriskuak murriztea). Arazo bitzuk berme osoz konpondu leitekez atxilotuak egoitza ofizialen barruan egin leikezan mobimentuak behar dan moduan mugatu ezkeru.

Hori guztiori egoitza ofizialen barruan Segurtasun Eremu bat mugatuta lortzen da. Eremu horrek baldintza orokor bat bete beharko dau: atxilotuak egin behar dauzan jarduera danak bertan egin ahal izatea, hau da, ez daian beste egoitza batera joan beharrik izan. Horreek jarduerak, askatasun barik egoteaz ganera, honeek dira oinarrian: aitamenak, identidade azterketak, mediku azterketak, adierazpenak hartzea, abogaduagaz alkarrizketak, etab.



Kokalekuari jagokonez, egoitza ofizialen barruan, bide publikoagaz mugea egingo ez dauen leku baten egon behar da. Etxebizitzakaz be ez dau mugarik egin behar. Sarrerea independentea izan behar da, atxilotuak ez daitezan Saileko bulegoetan zehar joan behar. Polizi ibilgailuek hartuko eta itxiko dabezan lekuetatik hurrean egon behar da. Eskilarak erabili behar izatea eragotzi beharko da.

Atxilotuagaz lotutako zereginak egin ahal izateko honeek egoitzak euki behar dira:

- Ziegak (indibidual bi, sexuaren eta edadearen arabera)
- Atxilotuentzako komuna.
- Galdeketetarako edo adierazpenak hartzeko gelea.
- Identifikazinarako, aitamenetarako eta azterketetarako gelea.
- Korridorea.
- Sarrerako atea.

Identifikazino gelea azterketa-aitamen gela legez erabili leiteke, baliabideak hobeto aprobetxetako.

Segurtasun Eremuak honeek euki behar dauz:

- Eguraste eta aireztapen sistemea.
- Argiztapen sistemea.
- Suteen kontrako sistemea.
- Zaintzarako eta entzuketetarako sistema elektronikoak.
- Energia sistema lagungarria.
- Komunikazino sistemea (informatika sarea, telefono sarea, etab.).

Jarraian, horreetako egoitzetako eta sistemetako bakotzak euki behar leukezan ezaugarriak azalduko doguz, kontuan hartuta, jakina, adierazoten diranaz ganera, beste ezaugarri batzuk be agertu leitekezala, oso garrantzitsuak horreek be.

ZIEGAK:

- KOKALEKUA. Hormak ez dira galdeketa gelakoen aldamenekoak izango.
- NEURRIAK: - Gitxieneko azalera 6 m² (3x2). Altuerea: 2,8 m.
- OHEA. Zementuzkoa, leuna eta margotua, eta ertzak biribilak. Ezin dira, ezelan be, altzari edo litera moetakoak izan. Koltxoia goma-espumazkoa izan behar da, inoiz be ez malgukizkoa. Ez da ezelango altzaririk ez osagarriarik (mahaitxua, ohepekorik, basorik, etab.) egon behar.
- ZORUA. Terrazo moetako baldosazkoa, zintarri bakoa.
- HORMAK. Estalki bikotzeko adreiluzkoak, terrazo moetako baldosazkoak, zorua legez, sendotasuna bermatzeko, barriz pintetako gastuak eragozteko eta erraz garbitzeko. Elektrizidade kutxa, entxufe, argi giltz eta osagarri bakoa.



- SABAIA. Ez dau igeltsuzko sabai bikotxik euki behar, hormigoizkoa izan behar da, leuna, pintura plastiko iraunkorragaz eta garbitzeko modukoagaz estalia; ez da elektrizidade kutxarik, kablerik, entxuferik, bonbillarik ez bestelako osagarriarik egon behar.
- ATEA. Neurriak: 0,80 x 2 m, metalezkoa, behatxulo eta aireztapen saretxu eta guztizkoa. Behatxuloa ateko zuloa da, 1,55 m-ko altueran, 0,25 x 0,25 neurrikoa, barrote bakoa, eta zulututako saretagaz, metakrilatozkoa zein metalezkoa, eta metalezko atetxuagaz, irekiera labankorrekoa. Aireztapen saretxua lurraren arrasean egon beharko da, eta behatxuloaren antzeko neurriak euki beharko dauz, barrote eta atetxu barik. Atearen kokalekua: hormearen erdian. Edegiteko sistema gidagarria izan behar da, gidariak ziegearen kanpoko partetik; eta, ahal dan neurrian, edegiteko sistema automatikoa izango da. Sistema automatikoaz ganera, mekanismoa eskuz edegiteko modukoa be izan behar da, automatikoak huts egin ezker.
- LEIHOAK. Kanpora: bat be ez. Barrukoa sarrerarantz, goiko aldean, 0,5 x 0,5 zabal, ziegako atearen ganeko partean, txapa zulatua edo metakrilatoa, zulatua hori be, gehienez be zentimetro bateko diametroko zuloakaz eta zulo bi kontrako angeluetan, 10 eta 5 zentimetrokoak, hurrenez hurren, argiztapen fokurako eta zaintza-kamerarako. Edegiteko mekanismoa kanporakoa izan behar da. Barruko leihoak hainbat funtzino beteten dauz: aireztapena, argiztapena, bideo-kameraz zaintzea ahalbidetzen dau, eta atea ezin bada edegi ziegara sartzeko bidea izan leiteke.
- ARGIZTAPENA. Ziegearen kanpoko partetik, zaintza gelatik datorren argiaren bidez edo barruko goiko leihoko fokuko argiagaz.
- AIREZTAPENA. Segurtasun eremuko berezkoa, barruko goiko leihoaren bidez.

ATXILOTUENTZAKO KOMUNA.

- NEURRIAK. Azalerea: 6 m² Altuerea: 2,8 m
- ZORUA. Terrazozkoa, ziegetan legez.
- SABAIA. Ziegetan legez. Lanpara bat kanpoko partetik, bestelako entxufe eta elektrizidade kutxa barik.
- HORMAK. Alikatuak, entxufe, lanpara, elektrizidade kutxa edo etengailu barik; azkeneko horreek sarrerearen kanpoko partean egongo dira.
- KOMUNEKO ELEMENTUAK:
 - Komun-aska: Zorukoa, zisternarik eta katerik bakoa, hormako sakagailuduna, uragaz garbitzeko.
 - Txizatokia: Hormakoa, komunontzi moetakoa eta forma biribilekoa. Ur-sakagailua horman.
 - Konketa: Horman eskegita, txorrotak sakagailuagaz.
 - Dutxea: Dutxa-platera. Ur-jaurtigailu finkoa, landatua. Ur-managailuak sakagailu bidezkoak. Gortina bakoa.
 - Osagarriak: Erroilu-euskarriak eta eskuoihal-kakoa, zeramikazkoak eta horman landatuak.
- ATEA. 1 x 2 m-ko neurrikoa. Plastikozkoa, ez gardena eta zeharrargitsua, kanpotik personearen siluetea ikusi daiten.



- LEIHOA. Barrukoa atearen ganean, ziegetakoen modukoa.
- ARGIZTAPENA ETA AIREZTAPENA. Ziegetan legez.

GALDEKETETARAKO GELEA.

- KOKALEKUA. Hormak ez dira ziegetakoen albokoak izan behar, eta soinubakotuta egon behar dira.
- NEURRIAK. Gitxieneko azalarea: 10 m². Altuerea: 2,8 m.
- HORMAK ETA SABAIA. Soinubakotuak izan behar dira. Pintura plastiko iraunkorragaz eta garbitzeko modukoagaz margotuak. Entxufeak euki behar dauz, baita telefono eta ordenagailu konexinorako urtekerak be.
- ZORUA. Ziegetakoen modukoa.
- ATEA. Barrubiguna. 0,25 x 0,25 m-ko begitxuloa euki behar dau, kristal ketukoa.
- ARGIZTAPENA. Artifiziala.
- AIREZTAPENA. Artifiziala, multzoan.
- ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK. Geletan modu iraunkorren egon behar dira kokatuta:
 - Mahai 1 instruktorearentzat, 1,20 x 0,80 neurrikoa, aulki arrunt tapizatuagaz.
 - Ordenagailurako mahai 1, idazkariarentzat, aulki moeta berberagaz.
 - 2 aulki arrunt, abogaduentzat eta akusatuarentzat.
 - Telefonoa eta ordenagailurako konexinoa.

AITAMEN/AZTERKETA/IDENTIFIKAZINO GELEA.

Honeek dira gitxieneko neurriak: 12 m². Hormak eta sabaia pintura plastiko iraunkorragaz eta garbitzeko modukoagaz margotuta egongo dira. Argazkietarako argiztapen elementuak finkoak izango dira, sabaian. Argazkien hondoan agertu beharreko zinta metrikoa horman margotuta egongo da. Aulki-altzaririk euki ezker, birak emoteko gailuagaz argazkiak hiru posizinoetan egiteko, gelan egon beharko da. Honeetarako zereginetarako galdeketa gelak erabilten badira, argiztapen fokuak sabaian ipiniko dira, finkoak. Aireztapena segurtasun eremukoa izango da.

- HORMAK ETA SABAIA. Kristal txinatarrak hartuko dauen hormea luzeena izan beharko da (personak ilaran parauta ikusteko modukoa) eta, horrezaz ganera, segurtasun eremuko korridorearen kanpoko parteagaz bat etorri behar da, lekuko identifikatzaileak eremu horretan sartu ez daitezkan. Kristala hartuko dauen leihoak neurri egokiak euki beharko dauz, gelearen ikuspegi zabala eukiteko (gitxienez 0,5 x 0,5 m). Hormak eta sabaia barrubigunak izan behar dira, gelea soinubakotzeko.

- ZORUA. Ziegetakoen modukoa.

- ARGIZTAPENA. Sabaian foku finkoak euki behar dira, mobitzeko modukoak. Zeregin horretarako galdeketa gela bat erabilten bada, holako fokuak euki beharko dauz, modu iraukorren; horrezaz ganera, kasu honetan, kristala egurrezko kontraleihoak edo pertsianakaz babestu beharko da, barruko partean ipinita.

- AIREZTAPENA. Aireztapena segurtasun eremukoa izango da.



KORRIDOREAK.

- EZAUGARRI OROKORRAK. Oro har, korridoreen luzerea ahalik eta laburrena izan behar da, segurtasun eremu barruko joan-etorriak laburrak izan daitezcan. Korridoreak komunikauko dauzan atea metalezkoa izan behar da, ziegetakoen antzekoa eta edegiteko sistema automatikokoak, kontroletik gidatutakoak.
- HORMAK, SABAIA ETA ZORUA. Hormetan eta sabaian ez da entxuferik ez leihorik egon behar. Zorua eta hormak (kasu honetan 2 m-ko altuerakoak) ziegetakoen moeta berekoak izango dira: terrazozkoak. Sabaia pintura plastiko iraunkorragaz eta garbitzeko modukoagaz estalita egongo da. Leihorik badago, leiho txikiak izan beharko dira, eta metro biko baino gehiagoko altueran egongo dira.
- ZABALERIA ETA ALTUERIA. Zabalera handia euki behar dabe, gitxienez paraleloan hiru persona ibilteko modukoak (atxilotu arriskutsuren bat eroan behar bada); zabalera, gitxienez, 1,5 m-koa izan behar da. Altuereta segurtasun eremuko berezkoa izango da.
- ARGIZTAPENA ETA AIREZTAPENA. Argiztapena artifiziala eta handia izango da. Aireztapena segurtasun eremuko berezkoa izango da.

ZIEGETARA SARTZEKO EREMUA.

- EZAUGARRI OROKORRAK. Ziegetarako eta atxilotuen komunetarako bidea izango da.
- HORMAK, SABAIA ETA ZORUA. Hormak eta zorua ziegetakoen modukoak izan behar dira, hau da, terrazozkoak. Sabaia pintura plastiko iraunkorragaz eta garbitzeko modukoagaz margotuta egongo da. Ziegen kanpoko hormen ganeko partean argiztapen fokuak eta ziegetako zaintza-kamerak ipiniko dira. Zorua ziegetakoen moeta berekoa izango da.
- ATEA. Atea metalezkoa, ziegetakoen modukoa. Automatikoki zabaltzeko sistema eukiko dau, eta agintailua kontrolean.

AIREZTAPEN ETA KLIMATIZAZINO SISTEMEA.

Egokiena aireztapen sistema zirkuitu itxikoa izatea izango litzateke, segurtasun eremu osoko aireztapena automatikoki erreguleta, zentralizauta. Aire girotuaren urtekerak korridoreetan eta geletan egongo dira. Aire erreguleta aparailua segurtasun eremutik kanpora egon behar da.

Egiturea dala-eta erradiadoreak ipini behar badira, horreek korridoreetan eta geletan egongo dira, inoiz be ez ziegetan, eta hormetan landatuta egongo dira, hormetatik urtetan dan elementurik bakoak.

ARGIZTAPEN SISTEMEA.

Geletako argiztapena artifiziala izango da, leihorik ez da egongo eta. Ziegetarako goritasunezkoak ez diran fokuak ipini behar dira. Ganerako geletan



eta eremu komunetan, argiztapen fluoreszentea ipintea komeni da. Gela eta korridore guztietan argitasun handia egon behar da.

SUTEEN KONTRAKO SISTEMEA.

Eraikin publiko guztietan ohikoak diran elementuak ipiniko dira suteen kontra. Segurtasun eremuan ziega ate bakoetako ke-detektagailu bat egongo da. Gela bakoetxean be detektagailu bat egon beharko da.

Ageriko segurtasun arrazoiak tarteko, korridoreetan, geletan eta ziegetan ez da su-itxalgailurik ez magerarik ipiniko. Horreek kontrol-postuko gelatxuan egongo dira.

ZAINTZARAKO ETA ENTZUKETETARAKO SISTEMA ELEKTRONIKOAK.

Ziega bakoetxean audio eta guztiko telebista kamera bat egongo da, angelu handia, ikusizko zaintzea egin ahal izateko. Atearen ganean egongo da, kanpoko partean ipinita, goiko leihoan horretarako eginiko zuloa aprobetxautu. Kamerako irudien grabazioa mobimendu-sentsore baten bidez aktibatu da.

Galdeketa, aitamen eta identifikazio geletan be barne komunikaziorako sistema egongo da. Era berean, galdeketa kasuetan, audio eta bideo grabazio sistema ipiniko da, erabili behar denerako.

ENERGIA SISTEMA LAGUNGARRIA.

Argindarraren hornidura-mozketarik egon ez daiten (segurtasuna arriskuan ez ipinteko), segurtasun eremua saileko energia sistema lagungarrira konektatu egongo da.

HIGIENA ETA MANTENIMENTUA.

Garbitasuna egoitza ofizialak garbitzeko jagokon kontratan sartuta egoten da.

Desinfekzioari eta intsektu hilketari jagokonez, hilean behin azterketa bat egin beharko litzateke ziegak sarri erabilten badira, eta hiru hilean behin ziegak lantzean behin erabilten badira.

Atxilotu askoren zirkunstantziak dirala-eta, hau da, sarri gaixotasun infekzioak eukiten dabenez (hiesa, hepatitis, etab.), komeni da mantak erabilten diran bakoetxean garbitzea. Ziegetan, normalean, koltxoia eta manta baino ez dira egoten. Mantei jagokonez azaldu diran arriskuak koltxoien kasuan ere badagoz. Arrisku hori arintzeko beharrezkotzat jotzen da atxilotu bakoetxari, manta ez eze, koltxoi-azala be emotea, iragazgaitza. Koltxoi-azal hori, eta manta, atxilotu batek erabilten dauzan bakoetxean garbitu beharko litzatekez.



III. Administrazioak beretzat gordetzen dituen ahalmenak

Baldintza Teknikoen Plegu honen interpretazioan zalantzak sortzen badira Bermeoko Udalaren irizpidearen arabera argitu beharko dira.

